Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abenduaren 29a, asteartea — 248 — Martes, a 29 de diciembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRUNGO UDALA

*2020ko kontratatziorako dirulaguntzak: Lanbide deialdia. BDNS (Identif.): 539099.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/539099).

2020 kontratatziorako diru-laguntzak (Lanbide deialdia) eskatzeko prozeduraren oinarri arautzaileak onartzen duen 1240/2020 ebazpena, abenduaren 15ekoa, Irungo Udaleko Alkatetzaren ebazpenaren laburpena.

*Xedea.*

Irungo udalerrian dauden enpresei ohiko merkatuan langabe izan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden eta Irunen erroldatuta dauden pertsonen kontratazioa erraztea, horien artean, Covid-19k tokiko enpresek ohiko merkatuan eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu ondoren enplegua galdu dutenak.

*Onuradunak eta betekizunak.*

Oinarri hauen xedeko laguntzaren onuradun izateko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte enpresek:

Lantokiak Irungo udalerrian egon behar du.

Enpresa kontratugileak egunean egon beharko du bere zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzarekin.

Enpresa batek ezingo du langile bera kontratatu aurreko deialdietan diruz lagundua izan bada.

*Kontratatutakoen betekizunak.*

Herrian erroldatuta egotea kontratazioari hasiera ematen zaion egunean, bai eta, oinarri hauek argitaratzen diren egunean.

Langabe gisa eta enplegu-eskatzaile gisa agertzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

Ahaidetasun-loturarik ez edukitzea, alde batetik, ez enpresaburuarekin edo enpresa kontrolatzen dutenekin, ez zuzendaritzako karguekin edo, hala dagokionean, ez enpresa kontratugilearen Administrazio Kontseiluko kideekin, eta, bestetik, ezta haien ezkontideekin, ondorengoekin eta bigarren mailarainoko odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaidetasun-lotura duten gainerako ahaideekin ere.

*Kontratazio-mota.*

Kontratuek 3 (hiru) edo 6 (sei) hilabeteko iraupena izango dute eta bi kasuetan lanaldi osokoak izango dira. Edozein lankontratu modalitateren bidez formalizatu ahalko da, prestakuntza eta ikaskuntza kontratua izan ezik.

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

*Ayudas a la contratación - Convocatoria de Lanbide. BDNS (Identif.): 539099.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/539099).

Extracto de la resolución n.º 1240/ 2020 de 15 de diciembre de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irun, por la que se aprueban las bases reguladoras del procedimiento de solicitud de ayudas a la contratación 2020, convocatoria de Lanbide.

*Objeto.*

El objeto de esta línea de subvención es facilitar a las empresas radicadas en el término municipal de Irun la contratación en el mercado ordinario de personas desempleadas empadronadas en Irun e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide - Servicio Vasco de Empleo, entre ellas las que hayan perdido su empleo con posterioridad a la declaración del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19.

*Beneficiarios/as y requisitos.*

Las empresas beneficiarias de la ayuda objeto de las presentes bases deberán de cumplir los siguientes requisitos:

El centro de trabajo se encontrará en el término municipal de Irun.

La empresa contratante deberá estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Una empresa no podrá contratar a un mismo trabajador/a, si ha sido subvencionada en convocatorias anteriores.

*Requisitos de las personas contratadas.*

Estar empadronado/a en la localidad a la fecha de inicio de la contratación, y así como en el momento de la publicación de estas bases.

Figurar como desempleado/a y estar inscrito/a como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

No tener relación de parentesco con el cónyuge, descendiente y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración de la empresa contratante.

*Tipo de contratación.*

Los contratos tendrán una duración de 3 (tres) o 6 (seis) meses, y en ambos casos a jornada completa Los contratos podrán formalizarse bajo cualquier modalidad de contratación laboral, a excepción del contrato para la formación y el aprendizaje.

EK\CV GAO-I-2020-06736

Edonola ere, kontratuak hasi beharko dira 2020ko urtarrilaren 01a eta 2020ko abenduaren 31 bitartean, eta diruz lagungarri den epealdia 2020ko ekainaren 30ean amaituko da, data horretatik aurrera irauten duen ala ez kontuan hartu gabe.

*Zuzkidura ekonomikoa eta diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Aurrekontu-zuzkidura: 1.098.000,00 euro.

Aurrekontu aplikazioa: 1.0810.471.01.241.10 2020.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: pertsonen soldataren eta gizarte segurantzako kostuen % 75 artekoa izango da, lanaldi osoko 3 (hiru) hilabeteko lan kontratu bakoitzeko 3.000 euro arteko mugarekin, eta 6 (sei) hilabete edo gehiagoko iraupena duten lanaldi osoko lan kontratu bakoitzeko 6.000 euro arteko mugarekin.

*Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.*

Eskaerak aurkezteko epea Oinarri Arautzaile hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdi honi esleitutako kreditua agortzen den unean amaituko da, edo, gehienez ere, 2021ko otsailaren 15ean.

Irun, 2020ko abenduaren 15a.—Hiri Bultzada, Ekonomia eta Ogasun Arloko zuzendaria. (6736)

En cualquier caso, los contratos deberán iniciarse entre el 01 de enero de 2020 y el 31 de diciembre de 2020, y el periodo subvencionable finalizará el 30 de junio de 2021, sin perjuicio de su duración más allá de dicha fecha.

*Dotación económica y cuantía.*

Dotación presupuestaria: 1.098.000,00 euros.

Aplicación presupuestaria: 1 0810.471.01.241.10 2020.

Cuantía de la subvención: hasta el 75 % de los costes salariales y de seguridad social de las personas contratadas, con el límite de 3.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa de 3 (tres) meses de duración y de 6.000 euros por cada contrato de trabajo a jornada completa de duración igual o superior a 6 (seis) meses.

*Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.*

El plazo para la presentación de solicitudes se iniciará al día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de estas Bases Reguladoras y finalizará en el momento en que se haya consumido el crédito asignado a esta convocatoria o, como máximo, el 15 de febrero de 2021.

Irun, a 15 de diciembre de 2020.—La directora del Área de Impulso Ciudad, Economía y Hacienda. (6736)

EK\CV GAO-I-2020-06736